

Breve historia del Colectivo de Presos Políticos Vascos [cas, eus]

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 14/07/2005

Se han hecho más conocidos por las luchas que han llevado a cabo este año. Aquí se muestra la historia del Colectivo.

Desde el año 1978 (tras el indulto de 1977) en el que el primer militante vasco fue detenido hasta hoy han pasado 27 años.

En ese tiempo, más de 4500 vascos han estado presos en los estados español y francés, haciendo frente a la represión, chantaje y violencia de estados. La política penitenciaria contra los presos políticos vascos ha variado en función de la estrategia que han mantenido los estados contra Euskal Herria en cada época. De hecho, quitando a los presos políticos vascos sus derechos políticos y colectivos, también han querido quitarle al conflicto su carácter político.

La política penitenciaria de los estados se ha diferenciado en las siguientes fases:

2.1 Régimen militar (1978-1981): En el año 1978 alejaron a todos los presos políticos de Euskal Herria a Soria. Allí, les impusieron un duro régimen. El control de los presos políticos vascos quedó en manos de un departamento especial de la policía española, y provocó palizas y situaciones difíciles.

Como no conseguían romper el Colectivo, trasladaron a 100 presos políticos a Puerto de Santa Maria. A pesar de que en Puerto de Santa Maria el control de la cárcel quedó en manos de los funcionarios de prisiones, la represión y la militarización de las condiciones de vida se acentuaron. Los presos políticos vascos tuvieron que soportar nuevos ataques: incomunicación, aislamiento, control de las comunicaciones, prohibición de hablar en euskara

2.2 Cárceles de máxima seguridad (1982-1986): En 1982 alrededor de 100 presos políticos fueron llevados de Soria a Alcalá Meco. Un año más tarde, la mayor parte de los presos políticos fueron trasladados a las cárceles de Herrera de la Mancha y Carabanchel para mujeres. Tras catalogarlos de "presos peligrosos", los presos políticos debieron enfrentarse a un régimen militarizado cuyo único objetivo era el arrepentimiento o su aniquilación. La mencionada política fue un "premio" como consecuencia de la división de ETA (pm) VII. El colectivo respondió a la estrategia de los estados con varias acciones de desobediencia y resistencia activa. Las largas acciones mencionadas (como los encierros durante diez meses) acabaron con las intenciones del gobierno.

2.3. Dispersión (1987-): Se reforzó especialmente tras las conversaciones de Argel y esta política diseñada por el PSOE con la ayuda del PNV y la opinión favorable de los partidos estatales, fue impulsada por los dos estados. En la fase anterior no pudieron obligar a arrepentirse al colectivo de presos políticos. Entonces, dispersaron a los presos políticos vascos por decenas en las cárceles, ayudados con una propaganda de comunicación

previamente diseñada. Asimismo, les negaron más derechos y las palizas y aislamientos personales y políticos se acentuaron.

Dentro de las mismas cárceles, también separaron a los presos políticos, con la intención de que los presos vascos fueran asimilados y dificultando la relación entre ellos. Con estas medidas, se acentuó el control sobre cada preso, por tanto, se impulsó la represión individualizada con la intención de afectar también al Colectivo de Presos Políticos Vascos (EPPK). En estos años también aumentó la participación de los funcionarios en la represión carcelaria. El objetivo era muy claro: destruir el colectivo por las buenas o por las malas.

La resistencia que ha mostrado el Colectivo en todas y cada una de las cárceles y las actitudes que ha mostrado la sociedad contra la dispersión han hecho frente a todas estas fases. A pesar de que todavía siguen aplicando la política de dispersión contra los presos políticos vascos, no han conseguido réditos políticos; muestra de que el Colectivo sigue unido son los análisis y acciones que llevan a cabo como colectivo. La dispersión política, sin embargo, sigue provocando consecuencias graves (palizas, negación de derechos, alejamientos, aislamiento)

Astintzen, nº 21 (publicación de la organización juvenil Segi)

[euskara]

EPPK-ren historia laburra

Urte honetan aurrera eramán duten borrokengatik gero eta ezagunagoak egin dira, hona hemen "Astintzen" agertutako haiei buruzko historia.

1978. urtean (1977ko indultoaren ostean) lehen euskal militantea atxilotua izan zenetik gaur arte 27 urte igaro dira.

4.500 euskaldun baino gehiago egon dira denbora horretan preso espainar eta frantziar estatuetan, errepresioari, xantaiari eta estatuen bortxakeriari aurre eginez. Estatuek Euskal Herriaren aurka aro bakoitzean izan duten estrategiaren arabera izan da euskal preso politikoen aurkako kartzela politika. Izan ere, euskal preso politikoei eskubide politiko eta kolektiboak kenduz, gatazka berari ere izaera politikoa kendu nahi izan die.

Estatuen espetxe politika ondoko faseetan ezberdindu da:

2.1 Erregimen militarra (1978-1981): 1978. urtean euskal preso politiko guztiak Euskal Herritik Soriara urrundu zituzten. Bertan, erregimen gogor bat ezarri zitzairen. Espainako Poliziaren sail berezi baten esku gelditu zen euskal preso politikoen kontrola eta, jipoiak eta muturreko egoerak eragin zituzten.

Kolektiboak apurtzea lortu ez zutenean, 100 euskal preso politiko Puerto de Santa Mariara eramán zituzten. Puerto de Santa Maria kartzelako kontrola kartzela-funtzionarioen esku gelditu zen arren, errepresioa eta bizi baldintzen militarizazioa areagotu egin ziren. Euskal preso politikoei eraso berriak jasan behar izan zituzten: inkomunikazioa, isolamendua, komunikazioen kontrola, euskaraz hitz egitearen debekua...

2.2 Segurtasun handiko kartzelak (1982-1986): 1982an ehun euskal preso politiko inguru Soriatik Alcala Mecora eramane zituzten. Urtebete beranduago, euskal preso politiko gehiengoak Herrera de la Manchara eta Emakumeentzako Karabantxelgo kartzelara eramane zituzten. "Preso arriskutsu" gisara katalogatu ostean, damutzea edo suntsitzea helburu zuen erregimen militarizatu bati egin behar izan zioten aurre euskal preso politikoek. Aipatu politika ETA (pm)-VII-ak bere burua desegitearen ondoriozko "saria" izan zen. Estatuaren estrategiari Kolektiboak desobedientziatzko eta erresistentzia aktiboko hainbat ekimenekin erantzun zion. Aipatu ekimenetako luzeenak (hamar hilabeteko itxialdiak Espainako Gobernuaren asmoak utzi zituen.

2.3 Sakabanaketa (1987-...): Bereziki Argeleko elkarrizketen (1989) ostean indartu zen eta bi estatuek bultzatu zuten politika hau PSOEk diseinatu zuen PNVren laguntzarekin eta Estatuaren menpeko ziren gainontzeko alderdien aldeko iritziarekin. Aurreko fasean ez zuten EPPK damutzea. Orduan, euskal preso politikoak hamarnaka kartzelatan sakabanatu zituzten, komunikatiboki diseinatutako propagandaz lagunduta (gogorak bigunak direnengandik banatu behar dira). Halaber, eskubide gehiago ukatu zituzten eta jipoiak eta isolamendu pertsonal nahiz politikoa areagotu egin zuten.

Kartzela barruan ere uskal preso politikoak sakabanatu egin zituzten, presoak asimilatu nahian euskal presoaren arteko harremana ostopatuz. Neurri hauekin guztiekin preso bakoitzarenganako kontrola areagotu zuten, ondoren, indibidualizatutako errepresioa bultzatuz Euskal preso politikoengan eragiteko asmoz. Urte hauetan kartzelaren errepresioan funtzionarioek izaniko parte hartzea areagotu egin zen. Helburu oso garbia zuten: kolektiboa nola edo hala suntsitzea.

Kartzelaz kartzela Kolektiboak erakutsitako erresistentziak eta gizarteak sakabanaketaren aurka azaldutako jarrerak fase hauei guztiei aurre egin die. Oraindik ere Euskal preso politikoaren aurka sakabanaketa politika aplikatzen jarraitzen duten arren, ez dute etekin politikorik lortu; EPPK baturik dagoenaren erakusle, kolektibo gisara egiten dituen azterketak eta ekimenak dira. Sakabanaketa politikoak, ordea, ondorio larriak (jipoiak, eskubideen urraketak, urrunketak, isolamendua...) eragiten jarraitzen du.

Astintzen, 21. zenbakia (Segi gazte erakunderen argitaratua)

<https://eh.lahaine.org/breve-historia-del-colectivo-de>